KURSAAL ESZENA

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOA

DATOZEN IKUSKIZUNAK
PRÓXIMOS ESPECTÁCULOS

ORCHESTRE PHILHARMONIQUE DU LUXEMBOURG
Auditorio Kursaal Auditorioa
Gustavo Gimeno, zuzendaria
Azaroa 11 Noviembre / 19:00
55 / 44 / 35 / 28 / 11 / 3 € *



"HARIEN ARTEAN"
Sala de Cámara Kursaal Ganbera Aretoa
Azaroa 17 Noviembre / 18:00
7 € / 3 € (< 12 urte)
A partir de 3 años (Euskaraz)

MUSIKA FAMILIAN



LUZ CASAL
Auditorio Kursaal Auditorioa
Azaroa 22 Noviembre / 20:00
32 € / 3 € *



PIOTR BECZALA, tenorra
Auditorio Kursaal Auditorioa
Azaroa 27 Noviembre / 20:00
39 / 31 / 25 / 20 / 11 / 3 € *



BENITO LERTXUNDI
Auditorio Kursaal Auditorioa
Abendua 01 Diciembre / 20:00
Abendua 03 Diciembre / 20:00
18 € / 3 € *



2.EMANALDIA ABENDUAK 3

LE CONCERT LORRAIN & DRESDEN KAMMERCHOR
Auditorio Kursaal Auditorioa
Oratorio de Navidad, J. S. Bach
Abendua 16 Diciembre / 19:00
49 / 39 / 31 / 25 / 11 / 3 € *



WWW.SARRERAK.KURSAAL.EUS
*ORDU GAZTEA <30 <30MIN 3€

Babesleak / Patrocinadores: edp euskaltel
Laguntzailea / Colaborador: elektra

Enpresa Elkartuak / Empresas Asociadas: kutxa GIROA VEOLIA herza telesonic ArcelorMittal

Komunikabide Elkartuak / Medios Asociados: SER estrategia Gipuzkoa




Koldo Izagirre, Karmele Gorroño eta Irene Irureta, atzo Donostiako Konstituzio Enparantzan.

# Beste Altzoko Handi bat, garaikide eta poetiko xamarra

**Koldo Izagirrek eta Irrimarra bikote sortzaileak bi album egin dituzte, modu guztiz askean jokatuz**

FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** Altzoko Handiari buruzko bi album grafiko plazaratu ditu Erein etxeak, Koldo Izagirreren testua eta Irrimarraren marrazkiak dutenak. 'Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak' eta 'Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa' dute izenburu eta pertsonaia historiko haren bertsio guztiz librea eskaintzen dute.

Azal gogorreko albumak dira, bata nahiz bestea 32 orrialdekoak, eta hamabosna euroan daude salgai.

Urteak dira Koldo Izagirre idazlea Migel Joakin Eleizegi (1818-1861) Altzoko Handiaren inguruan lanean hasi zela. Hasteko, haur-opera baterako testuak egin zituen, David Azurza musikari tolosarrak eskatuta. Gero, Altzoko Udalak eskatuta, Handiari buruzko zirkuitu baterako argibide-panelak prestatu zituen, alde grafikoaz Juanba Berasategi zena arduratu zelarik. Ondoren, Lourdes Murua Altzoko zinegotziak album grafiko batzuk egitea proposatu zion, eta idazleak halaxe ekin zion orain plazaratu den emaitzari.

Fito Rodriguezek esanda, Irrimarrarekin harremanetan jarri zen. Karmele Gorroño eta Irene Iruretak osatutako marrazkilari bikote honek guztiz aldatu zuen hasieran Izagirrek zerabilen ikusmoldea, eta azkenean poesia aldera egin zuen. «Lehenbizi, narrazio klasiko bat egin nuen. Pasatu nien testua bi marrazkilari hauei, albumaren zirriborroa erakutsi zidaten eta, marrazki haiek ikustean, segituan konturatu nintzen erabat aldatu behar nuela testua. Orain ez dago narraziorik, soilik solas batzuk, errimatuak, onomatopeia batzuk eta kopla eta kantu zenbait. Sekulako lana eskatu zidan. Nahikoa baita hitz desegoki bat orrialde dotore hauek izorratzeko», adierazi du Izagirrek aurkezpen ekitaldian.

Altzoko Handiaren bertsio guztiz askea egin du Izagirrek. Gaur egungo garaira ekarri du, eta Handiaren aldamenean Kutixi izeneko neskatila bihurria ipini du. Haren aldean, Handia pertsonaia apal eta sentibera da, inuxente xamarra, eta inpresio hori areagotu egiten da marrazkilariek emandako trataerarekin; posturekin, adibidez.

Umeentzako ez ezik, helduen-tzat ere erakargarriak gertatuko omen dira album koloretsuok. Baina helduek handikap handi bat daukate, Izagirrek aurkezpen-ekitaldian azaldu duenez: «Guk galdu egin dugu albumak sentitzeko gaitasuna. Izan genuen eskolaren ondorioz, moztadea daukagu, atrofiatuta gaude. Albuma zabaldu eta hasten gara pentsatzen zer ulertuko dugun; galdu dugu umeek daukaten fantaseatzeko eta gozatzeko gaitasuna».

Irrimarra bikote sortzailea Karmele Gorroño (Galdakao) eta Irene Iruretak (Zumaia) osatzen dute. Biak Arte Ederretan lizentziatuak (EHU), unibertsitatean bertan hasi ziren elkarlanean.

## EN BREVE

### Juan José Padilla, Premio Nacional de Tauromaquia

**TOROS**

El torero Juan José Padilla fue galardonado ayer con el Premio Nacional de Tauromaquia que concede el Ministerio de Cultura y Deporte «en reconocimiento a una extraordinaria carrera de veinticinco años, en la que ha alcanzado incontestables triunfos en las principales plazas del mundo». El diestro agradeció el galardón y reconoció que el toreo «no está pasando por un buen momento», si bien confía en que «el mundo taurino tenga siempre el apoyo político que necesita». EFE

### Pedro Ugarte presenta 'Lecturas pendientes'

**LITERATURA**

El escritor pedro Ugarte presenta está tarde su última obra 'Lecturas pendientes (Anotaciones sobre literatura)', editada por Nobel, acompañado por el editor Xabier Mendiguren, en un acto que se celebrará en la librería donostiarra Zubieta a partir de las siete de la tarde. DV

### Dalí y el surrealismo, en el Thyssen-Bornemisza

**ARTE**

El Museo Nacional Thyssen-Bornemisza acoge, hasta el 27 de enero, la exposición 'Dalí y el surrealismo en la Colección de Arte Abanca', un conjunto de 13 obras, seleccionadas de los fondos artísticos del banco, de artistas como Dalí, Miró o De Chirico. DV

### Fallece el compositor francés Francis Lai

**MÚSICA**

El francés Francis Lai, compositor de algunas de las más legendarias bandas sonoras de la historia del cine como las de 'Love Story' o 'Un homme et une femme', murió a los 86 años, anunció ayer el alcalde de Niza, Christian Estrosi. «He conocido con inmensa pena el fallecimiento de Francis Lai, gran compositor nicense», escribió en Twitter Estrosi, quien añadió que propondrá a su familia poner el nombre del músico a un «lugar emblemático» de la ciudad mediterránea. Lais recibió el Oscar a la mejor banda sonora en 1970 por 'Love Story', aunque ya había sido nominado cuatro años antes a ese mismo galardón por 'Un homme et une femme'. Lai se caracterizó también por la innovación con instrumentos de música electrónica. EFE